

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: 2009/39/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,  
2009ko maiatzaren 6koa, elikadura berezira zuzendutako elikagaiei buruzkoa.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*DIRECTIVA 2009/39/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 6 de mayo de 2009, relativa a los productos alimenticios destinados a una alimentación especial* » (Diario Oficial de la Unión Europea, L 124/21 de 20/05/2009)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**2009/39/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena  
2009ko maiatzaren 6koa,  
elikadura berezira zuzendutako elikagaiei buruzkoa  
(bertsio bategina)**

(Testu egokia EEEren ondorioetarako)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatua, eta, bereziki, haren 95. artikulua aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute [1],

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu diote [2],

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Kontseiluaren 89/398/EEE Zuzentaraua, 1989eko maiatzaren 3koa, estatu kideek elikadura berezira zuzendutako elikagaiei buruz emandako legediak bateratzeari buruzkoa[3], hainbatetan aldatu da, funtsean aldatu ere [4]. Komenigarria da, arrazionaltasunaren eta argitasunaren mesedetan, Zuzentaru hori bateratzea.

(2) Estatuaren elikadura berezira zuzendutako elikagaiei buruzko legedien artean desberdintasunak daude, eta desberdintasun horiek produktu horien zirkulazio askea oztopatzen ditu, lehia-baldintza desberdinak sortzen dituzte, eta hori dela eta, barne-merkatuan eragin zuzena dute.

(3) Estatuaren legediak bateratzeak hau dakar berekin: lehenengo fasean definizio erkide bat sortzea, kontsumitzailea produktu horien izaerari buruzko iruzurren aurka babesteko neurriak zehaztea, eta produktu horien etiketak zer arauetara egokitu behar diren finkatzea.

(4) Zuzentaru honen aplikazio-eremuan sartzen diren produktuak elikagai bereziak dira. Elikagai horien konposizioa eta egiteko modua bereziki aztertu behar dira, funtsean zuzenduta dauden pertsonen nutrizio-behar bereziak asetzeko. Horren ondorioz, beharrezkoa izan daiteke xedapen orokorrei edo elikagaiei aplikatu dakizkieken berariazko xedapenei salbuespenak aurreikustea, berariazko nutrizio-helburua lortzeko.

(5) Elikagai guztien kontrola arautzen duten arau orokorrei jarraiki, berariazko xedapenak dituzten elikadura berezirako elikagaien kontrol eraginkorra egin daitekeen arren, beti ez da gauza bera gertatzen berariazko xedapen horiek ez dituzten elikagaiekin.

(6) Hain zuzen, azken kasu horretan, kontrol-zerbitzuen eskura dauden ohiko baliabideek egoera jakinetan ez dute aukerarik ematen egiaztatzeko produktu horiek egiantan esaten duten berariazko nutrizio-propietateak dituzten ala ez. Horrenbestez, ezinbestekoa da aurreikustea, beharrezkoa bada, produktu hori merkaturatzearen arduradunak kontrol-zerbitzuari lagundu behar diola bere lanak egiten.

(7) Dagozkien berariazko Zuzentaruaren bidez ezarri behar dira elikagaien talde jakinei aplikatu dakizkieken berariazko xedapenak.

(8) Beharrezkoa da prozedura bat ezartzea, berrikuntza teknologikoen emaitza diren elikagaiak aldi baterako merkatuan jartzeko aukera emango duena, industriako ikerketaren emaitzei balio handiagoa emateko, dagokion berariazko zuzentaruaren aldatzearen zain. Hala ere, kontsumitzaileen osasuna babesten dela bermatzeko, merkatuan jartzeko baimena aurretik Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritzari kontsulta egin ondoren emango da soilik.

(9) Ez dagoenez argi karbono-hidratoen metabolismoan asaldurak dituzten pertsonen (diabetikoak) zuzendutako elikagai-taldeari buruzko berariazko xedapenak hartzeko oinarri egokirik dagoen ala ez, Batzordeari geroago eman behar zaio baimena dagokien xedapenak hartzeko edo proposatzeko, aurretik Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritzari kontsulta egin ondoren.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(10) Oraindik Erkidegoan batera daitezke elikadura berezi bati zuzendutako beste elikagai-talde batzuk arautzen dituzten arauak, kontsumitzailearen babesaren eta elikagai horien zirkulazio askearen alde.

(11) Erkidegoko araudiaren oinarri-printzipioak aplikatzeko berariazko zuzentarauak egitea eta aldatzea aplikazio-neurri teknikoak dira. Batzordeari dagokio zuzentarau horiek hartzea, prozedura errazteko eta bizkortzeko.

(12) Zuzentarau hau betetzeko beharrezko neurriak onartu behar dira, 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiari jarraiki; hau da, Batzordeari esleituriko eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen dituen erabakiari jarraiki [5].

(13) Egokia da, bereziki, Batzordeari eskumenak ematea berariazko zenbait zuzentarau hartzeko, nutrizio-xede bereziko substantzien zerrenda bat eta elikadura berezirako elikagaiei gehi dakizkieken substantzien beste zerrenda bat egiteko, aplika dakizkieken purutasun-irizpideak zehazteko, eta dagokionean, substantzia horiek erabiltzeko baldintzak finkatzeko. Halaber, Batzordeari beste hauek hartzeko eskumena ere eman behar zaio: berariazko nutrizio-xede baterako egokiak diren ohiko kontsumorako elikagaiak adierazteko aukera ematen duten xedapenak; karbono-hidratoen metabolismoan asaldurak dituzten pertsonen (diabetikoak) zuzendutako elikagaiei buruzko xedapen bereziak; sodioa edo gatza (sodio kloruroa, mahaiko gatza) murriztea, edo sodiorik edo gatzik ez izatea, edo glutenik ez izatea aipatzen duten zehaztapenen erabilera-modalitatea; produktuak deskribatzeko; eta beste modalitate batzuk, etiketek, aurkezpenak eta publizitateak modalitate horien arabera aipatu ahal izateko dieta bat edo pertsona-kategoria bat. Neurri horiek orokorrak eta Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero (funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin ere osatu daitezke), 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan agindutako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira.

(14) Premiazko arrazoiak direla eta, ezin badira errespetatu kontrol-dun arautze-prozeduraren esparruan normalean aplika daitezkeen epeak, Batzordeak 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan 6. paragrafoan agindutako urgentziatzko prozedura aplikatu ahal izango du, hauek hartzeko eta aldatzeko: nutrizio-xede berezia duten substantzien zerrenda eta elikadura berezirako elikagaiei gehi dakizkieken substantzien zerrenda; aplika dakizkieken purutasun-irizpideak, eta dagokionean, irizpide horiek erabiltzeko baldintzak. Halaber, urgentziatzko prozedura aplikatu ahal izango du, zuzentarau hau aldatzeko edo berariazko zuzentarauak aldatzeko, elikadura berezirako elikagai batek giza osasuna arriskuan jartzen badu, berariazko dagokion zuzentarauaren xedapenetara egokitu arren.

(15) Zuzentarau honetan sartutako elementu berriak komitearen prozedurei buruzkoak baino ez dira. Horren ondorioz, ez da beharrezkoa estatu kideek elementu horiek jasotzea.

(16) Zuzentarau honek ez du eraginik estatu kideen betebeharren gainean: ez II. eranskinen B zatiko zuzentarauak estatuko zuzenbidean sartzeko epeari dagokionez, ezta zuzentarauak aplikatzeari dagokionez ere.

### HONAKO ZUZENTARAU HAU EMAN DUTE:

#### 1. artikulua

1. Zuzentarau honek elikadura berezira zuzendutako elikagaiei eragiten die.

2. Elikadura berezirako elikagaiak ohiko kontsumorako elikagaietatik argi bereizten dira beren konposizio berezia edo fabrikazio-prozesu berezia dela-eta. Elikagai horiek egokiak dira adierazitako nutrizio-xederako eta xede hori horri erantzuten diotela adieraziz merkaturatzen dira.

3. Elikadura bereziak hauen nutrizio-premia bereziak ase behar ditu:

a) Asimilazio- edo metabolismo-prozesuetan asaldurak dituzten pertsona-mota jakinak;

b) Baldintza fisiologiko bereziak dituzten, eta hori dela eta, elikagaietatik substantzia jakinak kontrolpean janean onura bereziak lortzen dituzten pertsonen klase jakinak, edo

c) Osasun ona duten bularreko haurrak edo oso haur txikiak.

#### 2. artikulua

1. 1.artikuluan 3. paragrafoaren a) eta b) idatz-zatiek aipatzen dituzten produktuak “dietetiko” edo “dietarako” oharren bidez berezi ahal izango dira.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

2. Ohiko kontsumorako elikagaien etiketetan, aurkezpenean eta publizitatean debekatuta egongo dira:

a) Elikagai horiek izendatzeko "dietetiko" edo "diatarako" kalifikatzaileak erabiltzea, bakarrik edo beste hitz batzuekin konbinatuta.

b) 1. artikuluan definitutako produktuetako bat dela pentsaraz dezakeen edozein ohar edo edozein aurkezpen jartzea.

Hala ere, Batzordeak hartuko dituen xedapenen arabera, onartu ahal izango da propietate hori aipatzea elikadura berezirako egokiak diren ohiko kontsumorako elikagaietan.

Xedapen horiek finka ditzakete zer modalitatearen arabera egingo den ohar hori..

Bigarren paragrafoak aipatzen dituen neurriak, zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzen eta osatzen dutenak, 15. artikuluan 3. paragrafoan jasotako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira.

### 3. artikulua

1. 1. artikuluan aipatzen diren produktuen izaera edo konposizio egokiak izan behar dute, produktu horiek beren nutrizio-xede berezirako egokiak izateko.

2. Era berean, 1. artikuluan aipatzen diren produktuek egokitu egin beharko dute ohiko kontsumorako elikagaiei aplikatu dakizkieken derrigorrezko xedapenetara, 1. artikuluan aurreikusitako definizioetara egokitzeko produktu horiei egin zaizkien aldaketek dagokienez izan ezik.

### 4. artikulua

1. Berriazko zuzentzarauen bidez ezarriko dira I. eranskinean jasotzen diren elikadura berezirako elikagai-taldeei aplikatu dakizkieken berriazko xedapenak.

Zuzentarau horiek hauek jaso ditzakete batez ere:

a) Produktuen izaerari edo konposizioari buruzko oinarritzko ezaugarriak;

b) Lehengaien kalitateari buruzko xedapenak;

c) Higienearen alorreko ezaugarriak;

d) 3. artikuluan 2. paragrafoari jarraiki baimendutako aldaketak;

e) Gehigarrien zerrenda bat;

f) Etiketei, aurkezpenari eta publizitateari buruzko xedapenak;

g) Laginak hartzeko modalitateak eta beharrezko analisi-metodoak, berriazko zuzentzarauen xedapenekin bat datoze kontrolatzeko.

Zuzentarau horiek hartuko dira:

- Tratuko 95. artikuluan agindutako prozedurari jarraiki, e) idatz-zatiari dagokionez,

- Gainerako paragrafoei dagokienez, Batzordeak emana. Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak (osatu ere egin dezakete) 15. artikuluan 3. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira.

Osasun publikoan eragina izan dezaketen xedapenak ezarriko dira aurretik Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritzari kontsulta egin ondoren.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

2. Aurrerakuntza zientifikoaren eta teknikoaren emaitza diren elikadura berezirako elikagaiak azkar merkaturatzeko, aurretik Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritzari kontsulta egin ondoren, Batzordeak baimena eman ahal izango du, bi urteko aldirako, hauetan ezarritako konposizio-arauak betetzen ez dituzten produktuak merkaturatzeko: I. eranskinean jasotako elikadura berezira zuzendutako elikagai-taldeetarako berariazko zuzentarauak. Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak (osatu ere egin dezakete) 15. artikulua 3. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betetz hartu behar dira.

Hala badagokio, Batzordeak baimenaren erabakian zehatz ditzake konposizio-aldaketari dagozkion etiketaren arauak.

3. Batzordeak nutrizio-xede berezia duten substantzien (hala nola hala nola bitaminak, gatz mineralak, aminoazidoak eta elikadura berezirako elikagaiei gehi dakizkie beste substantzia batzuk) zerrenda bat egingo du. Halaber, substantzia horiei aplikatu dakizkiekeen purutasun-irizpideak hartuko ditu, eta dagokionean, erabilera-baldintzak.

Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak (osatu ere egin dezakete) 15. artikulua 3. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betetz hartu behar dira.

Premiazko arrazoiak direla eta, Batzordeak 15. artikulua 4. paragrafoan adierazitako urgentziako prozedura erabili ahal izango du.

### 5. artikulua

Batzordeak onartuko ditu sodio- edo gatz-edukiaren murriztea, edo sodio- edo gatz-edukirik ez izatea, edo glutenik ez izatea aipatzen duten baldintzen erabilera-modalitateak, 1. artikuluan aipatutako produktuak deskribatzeko.

Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak (osatu ere egin dezakete) 15. artikulua 3. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betetz hartu behar dira.

### 6. artikulua

2002ko uztailaren 8a baino lehen, aurretik Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritzari kontsulta egin ondoren, Batzordeak txosten bat aurkeztuko dio Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, karbono-hidratoen metabolismoan asaldurak dituzten pertsonen (diabetikoak) zuzendutako elikagai-taldeari buruzko berariazko xedapenen egokitasunari buruzkoa.

Txosten horren ondoreak kontuan hartuz, Batzordeak:

- a) Xedapen berezi horiek egingo ditu, edo
  - b) Tratatu 95. artikuluan xedatutako prozedurari jarraiki, Zuzentarau hau aldatzeko proposamen egokiak aurkeztuko ditu.
- a) Idatz-zatiak aipatzen dituen neurriak, zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzen dutenak (osatu ere egin dute), 15. artikulua 3. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betetz hartu behar dira.

### 7. artikulua

Batzordeak ezar ditzake etiketetan, aurkezpenean eta publizitatean zer modalitate erabil daitezkeen, dieta bat edo 1. artikuluan aurreikusitako produktuen xede diren pertsonen kategoria aipatzeko.

Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak (osatu ere egin dezakete) 15. artikulua 3. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betetz hartu behar dira.

### 8. artikulua

1. 1. artikuluan aipatutako produktuen etiketek eta horretarako erabilitako modalitateek, aurkezpenak eta publizitateak ez dute adierazi behar produktu horiek giza gaixotasun bat prebenitzeko, tratatzeko eta sendatzeko propietaterik dutenik, ez eta propietate horiek gogorarazi behar ere.

Ohiz kanpoko oso egoera jakinetan, lehen lerrokadari salbuespenak egin dakizkioke. Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak (osatu ere egin dezakete) 15. artikulua 3. paragrafoan

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira. Salbuespen horiei euts dakieke, prozedura hori bukatu arte.

2. 1. paragrafoak ez du eragotziko medikuntza, nutrizio edo farmaziaren arloan gaitutako pertsonen soilik zuzendutako edozein informazio edo gomendio baliagarri hedatzea.

### 9. artikulua

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/13/EE Zuzentaraua, 2000ko martxoaren 20koa, estatu kideen elikagaien etiketei, aurkezpenari eta publizitateari buruzko legediak bateratzeari buruzkoa [6], Zuzentaru honetako 1. artikuluan aipatutako produktuei aplikatu dakieke, artikulua honen 2., 3. eta 4. paragrafoetan ezartzen diren baldintzetan.

2. Produktu baten jatorri-deiturarekin batera jarri behar da produktuaren nutrizio-ezaugarri berezien aipamena. Hala ere, 1. artikulua 3. paragrafoaren c) idatz-zatian aipatutako produktuetan, aipamen horren ordez zer helmuga duten adierazi behar da.

3. Produktu batzuei buruz ez da hartu berariazko zuzentaruak 4. artikuluari jarraiki. Produktu horien etiketan hauek adierazi behar dira:

a) Konposizio kualitatiboaren eta kuantitatiboaren elementu bereziak edo produktuaren nutrizio-ezaugarri bereziak ematen dizkion fabrikazio-prozedura berezia;

b) Zer balio energetiko duen, kj-tan eta kcal-tan adierazita, eta merkaturatutako produktuaren 100 g-ko edo 100 ml-ko zenbat karbono-hidrato, protido eta lipido duen; eta kontsumorako proposatutako kantitateak ere zenbat karbono-hidrato, protido eta lipido duen, produktua horrela aurkezten bada.

Hala ere, balio energetikoa txikiagoa bada merkaturatutako produktuaren 100 g-ko edo 100 ml-ko 50 kj (12 kcal) baino, ohar horien ordez aipamen hauek jar daitezke: "balio energetiko txikiagoa 100 g-ko 50 kj (12 kcal) baino " edo "balio energetiko txikiagoa 100 ml-ko 50 kj (12 kcal) baino".

4. Produktu batzuei buruz berariazko zuzentaruak hartu dira, eta produktu horien etiketei aplikatu dakizkizkien ezaugarri bereziak zuzentaru horietan ezarri dira.

### 10. artikulua

1. 1. artikuluan aipatutako produktuak aurretik paketatuta soilik merkaturatu daitezke, eta paketatzeak erabat estaltzen dituela.

2. Estatu kideek 1. paragrafoan adierazitakoari salbuespenak egin dakizkizkizkete txikizkako merkataritzarako, eta horrelakoetan, produktuaren salmentarako aurkezpenean 9. artikuluan aurreikusitako oharra jarri behar da.

### 11. artikulua

1. Elikadura berezira zuzendutako eta I. eranskinean ageri ez diren taldeetako batekoak ez diren elikagaiei dagokienez, eta elikagai horien kontrol ofizial eraginkorra egin ahal izateko, berariazko xedapen hauek aplikatu dira:

a) Produktu bat lehen aldiz merkaturatzen denean, fabrikatzaileak, edo hirugarren herrialde batean fabrikatutako produktua bada, inportatzaileak, horren berri emango dio produktua merkaturatu den estatuko agintari eskudunari, produktu horrentzat erabiliko den etiketa-modelo bat transmitituz;

b) Produktu bera hurrengo aldiz beste herrialde batean merkaturatzean, fabrikatzaileak, edo hala dagokionean, inportatzaileak, estatu kide horretako agintari eskudunari informazio bera transmitituko die, lehen jakinarazpena jaso zuten agintarien oharrekin osatuta;

c) Beharrezkoa balitz, agintari eskudunak ahalmena du fabrikatzaileari, edo dagokionean, inportatzaileari, hau eskatzeko: produktua 1. artikulua 2. eta 3. paragrafoekin, eta 9. artikulua 3. paragrafoaren a) idatz-zatiak ezartzen dituen aipamenekin bat datorrela justifikatzen duten lan zientifikoak eta datuak aurkeztea. Betiere datu horiek erraz eskura daitezkeen argitalpen batean agertu badira, nahikoa izango da argitalpenaren erreferentzia ematea.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

2. Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko diote agintari eskudunen nortasuna, 1. paragrafoa betez, bai eta agintari eskudunei buruzko beste edozein informazio baliagarri ere.

Batzordeak informazio horiek argitaratuko ditu Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean.

3. Garatzeko arauak hartu ahal izango dira, 2. paragrafoari dagokionez, 15. artikulua 2. paragrafoan adierazitako arautze-prozedurari jarraiki.

4. Hiru urtean behin, eta lehen aldiz 2002ko uztailaren 8a baino lehen, Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari txosten bat bidaliko die artikulua honen aplikazioari buruz.

### 12. artikulua

1. Estatu kideek ezingo dute debekatu edo murriztu 1. artikuluan adierazitako produktuen eta Zuzentarau honekin bat datozen produktuen merkataritza, eta hala dagokionean, Zuzentarau hau aplikatzean hartutako zuzentarauekin bat datozen produktuen merkataritza, konposizioagatik, fabrikazio-ezaugarriengatik eta produktuen etiketen aurkezpenagatik.

2. 1. paragrafoak ez die eragingo estatuko xedapen aplikagarriei, Zuzentarau hau aplikatzeko hartu diren zuzentarauek ez badago.

### 13. artikulua

1. Estatu kide batek egiaztatzen badu, arrazoibide zehatz batean oinarrituz, elikadura berezira elikagai bat, I. eranskinean ageri diren taldeetako batekoa ez dena, arriskutsua dela giza osasunerako, estatu kide batean edo batean baino gehiagotan askatasunez zirkulatu arren, estatu kide horrek produktu horren merkaturatzea aldi baterako eten edo muga dezake bere lurraldean. Estatu kide horrek berehala eman behar dio horren berri Batzordeari eta gainerako estatu kideei, eta erabakia justifikatzen duten arrazoiak zehaztu behar ditu.

2. Batzordeak ahalik eta azkarren aztertuko ditu estatu kide interesdunak argudiatutako arrazoiak, eta 15. artikulua 1. paragrafoan adierazitako Komitean kontsultatuko die estatu kideei. Ondoren, irizpena emango du luzamendurik gabe, eta neurri egokiak hartuko ditu.

3. Batzordeak uste balu estatuko neurria kendu edo aldatu egin behar dela, 15 artikulua 2. paragrafoan adierazitako arautze-prozesuari jarraiki, beharrezko neurriak hartuko lituzke.

### 14. artikulua

1. Estatu kide bat ohartuko balitz, datu berriak direla-eta edo berariazko zuzentarauek hartu ondoren egindako datuen beste ebaluazio bat dela-eta arrazoi zehatzak dituelako, elikadura berezira elikagai bat erabiltzeak giza osasuna arriskuan jartzen duela, dagokion berariazko zuzentarauek xedapenetara egokitu arren, estatu kide horrek aldi baterako eten edo muga dezake xedapen horien aplikazioa bere lurraldean. Horren berri emango die berehala gainerako estatu kideei eta Batzordeari, erabakia justifikatzen duten arrazoiak zehaztuz.

2. Batzordeak ahalik eta azkarren aztertuko ditu estatu kide interesdunak argudiatutako arrazoiak, eta 15. artikulua 1. paragrafoan adierazitako Komitean kontsultatuko die estatu kideei. Ondoren, irizpena emango du luzamendurik gabe, eta neurri egokiak hartuko ditu.

3. Batzordeak beharrezkotzat jotzen badu Zuzentarau hau edo berariazko zuzentarauek aldatzea, 1. paragrafoan aipatutako zailtasunak arintzeko eta giza osasuna bermatzeko, aldaketa horiek egingo ditu.

Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek 15. artikulua 3. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartuko dira. Premiazko arrazoiak direla eta, Batzordeak 15. artikulua 4. paragrafoan adierazitako urgentziarako prozedura erabili ahal izango du.

Horrelakoetan, babes-neurriak hartu dituen estatu kideak neurri horiei euts dakieke, aldaketa horiek egin arte.

### 15. artikulua

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

1. Batzordeak elika-katearen eta animalia-osasunaren Komite iraunkorraren laguntza izango du. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 178/2002/EE Erregelamenduko 58. artikulua bidez sortu zen Komite hori [7].

2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, 1999/468/EE Erabakiko 5. eta 7. artikulua aplikatuko dira, eta 8. artikuluan xedatutakoa ere beteko da.

1999/468/EE Erabakiko 5. artikulua 6. paragrafoan jasotako epea bi hilabetekoa izango da.

3. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, 1999/468/EE Erabakiko 5. bis artikulua 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua aplikatuko dira, eta 8. artikuluan xedatutakoa ere beteko da.

4. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, 1999/468/EE Erabakiko 5. bis artikulua 1., 2., 4. eta 6. paragrafoak eta 7. artikulua aplikatuko dira, eta 8. artikuluan xedatutakoa ere beteko da.

16. artikulua

II. eranskinaren A.zatian adierazitako xedapenek aldatutako 89/398/EE zuzentaraua indargabetuta geratuko da. Nolanahi ere, zuzentarau honek ez du eraginik estatu kideen betebeharretan gainean: ez zuzentarau estatuko zuzenbidean sartzeko epeari dagokionez, ezta II. eranskineko B zatiko zuzentaruak aplikatzeari dagokionez ere.

Indargabetutako zuzentaruari egindako erreferentziak zuzentaru honi egindakotzat hartuko dira, eta XVI. eranskineko korrespondentzia-taularen arabera interpretatuko dira.

17. artikulua

Zuzentarau hau Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeit hamar egunera sartuko da indarrean.

18. artikulua

Estatu kideak dira Zuzentarau honen hartzaileak.

Estrasburgon emana, 2009ko maiatzaren 6an.

Europako Parlamentuaren izenean.

Presidentea

H.-G. Pöttering

Kontseiluaren izenean.

Presidentea

J. Kohout

[1] 211 C EO, 2008.08.19koa, 44. or.

[2] Europako Parlamentuaren Irizpena, 2008ko irailaren 23koa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2009ko martxoaren 30koa.

[3] 186 L EO. 1989.06.30koa, 27. or.

[4] Ikus II. eranskineko A zatia.

[5] 184 L EO. 1999.07.17koa, 23. or.

[6] 109 L EO. 1000.05.06koa, 29. or.

2009/39/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 124 2009/05/20koa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

[7] Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 178/2002/EE Erregelamendua, 2002ko urtarrilaren 28koa, elikagaiei buruzko legediaren printzipioak eta ezaugarri orokorrak ezartzen dituena, Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritza sortzen duena, eta elikagaien segurtasunari buruzko prozedurak finkatzen dituena (31 L EO, 2002.2.1 ekoa, 1. or.)

## ANEXO I

A. Grupos de productos alimenticios destinados a una alimentación especial para los que se establecerán disposiciones específicas mediante directivas específicas <sup>(1)</sup>:

- 1) preparados para lactantes y preparados de continuación;
- 2) alimentos elaborados a base de cereales y alimentos infantiles para lactantes y niños de corta edad;
- 3) alimentos destinados a ser utilizados en dietas de bajo valor energético para reducción de peso;
- 4) alimentos dietéticos destinados a usos médicos especiales;
- 5) alimentos adaptados a un intenso desgaste muscular, sobre todo para los deportistas.

B. Grupos de productos alimenticios destinados a una alimentación especial para los que se establecerán disposiciones específicas mediante una directiva específica <sup>(1)</sup>, según el resultado del procedimiento descrito en el artículo 6:

Alimentos destinados a las personas afectadas de perturbaciones en el metabolismo de los hidratos de carbono (diabéticos).

---

<sup>(1)</sup> Se entiende que los productos que ya estén en el mercado cuando se adopte una directiva específica no se verán afectados por la misma.

## ANEXO II

## PARTE A

**Directiva derogada con la lista de sus modificaciones sucesivas  
(contempladas en el artículo 16)**

Directiva 89/398/CEE del Consejo  
(DO L 186 de 30.6.1989, p. 27)

Directiva 96/84/CE del Parlamento Europeo y del Consejo  
(DO L 48 de 19.2.1997, p. 20)

Directiva 1999/41/CE del Parlamento Europeo y del Consejo  
(DO L 172 de 8.7.1999, p. 38)

Reglamento (CE) nº 1882/2003 del Parlamento Europeo y del Consejo  
(DO L 284 de 31.10.2003, p. 1)

Solamente el punto 15 del  
anexo III

## PARTE B

**Plazos de transposición al Derecho nacional y de aplicación  
(contemplados en el artículo 16)**

Directiva	Plazo de transposición	Admisión del intercambio de los productos que se ajustan a lo dispuesto en la presente Directiva	Prohibición del intercambio de los productos que no se ajustan a lo dispuesto en la presente Directiva
89/398/CEE	—	16 de mayo de 1990 <sup>(1)</sup>	16 de mayo de 1991 <sup>(1)</sup>
96/84/CE	30 de septiembre de 1997	—	—
1999/41/CE	8 de julio de 2000	8 de julio de 2000 <sup>(2)</sup>	8 de enero de 2001 <sup>(2)</sup>

<sup>(1)</sup> De conformidad con el artículo 15 de la Directiva 89/398/CEE:

- «1. Los Estados miembros modificarán sus disposiciones legales, reglamentarias y administrativas de forma que:
- admitan el comercio de los productos que son conformes a la presente Directiva, a partir del 16 de mayo de 1990,
  - prohíban el comercio de los productos que no son conformes a la presente Directiva, a partir del 16 de mayo de 1991.
- Los Estados miembros informarán de ello inmediatamente a la Comisión.
2. El apartado 1 no afectará a las disposiciones nacionales que, a falta de las directivas previstas en el artículo 4, regulen determinados grupos de productos alimenticios destinados a una alimentación especial.»

<sup>(2)</sup> De conformidad con el artículo 2 de la Directiva 1999/41/CE:

- «Los Estados miembros pondrán en vigor las disposiciones legales, reglamentarias y administrativas necesarias para dar cumplimiento a lo dispuesto en la presente Directiva a más tardar el 8 de julio de 2000. Informarán de ello inmediatamente a la Comisión.
- Dichas disposiciones se aplicarán de manera que:
- permitan el comercio de los productos que se ajusten a lo dispuesto en la presente Directiva, a más tardar el 8 de julio de 2000,
  - prohíban el comercio de los productos que no se ajusten a lo dispuesto en la presente Directiva, a más tardar el 8 de enero de 2001.
- Cuando los Estados miembros adopten dichas disposiciones, estas harán referencia a la presente Directiva o irán acompañadas de dicha referencia en su publicación oficial. Los Estados miembros establecerán las modalidades de la mencionada referencia.»

## ANEXO III

## TABLA DE CORRESPONDENCIAS

Directiva 89/398/CEE	Presente Directiva
Artículo 1, apartado 1	Artículo 1, apartado 1
Artículo 1, apartado 2, letra a)	Artículo 1, apartado 2
Artículo 1, apartado 2, letra b)	Artículo 1, apartado 3
Artículo 1, apartado 2, letra b), incisos i), ii) y iii)	Artículo 1, apartado 3, letras a), b) y c)
Artículo 2, apartado 1	Artículo 2, apartado 1
Artículo 2, apartado 2	Artículo 2, apartado 2, párrafo primero
Artículo 2, apartado 3	Artículo 2, apartado 2, párrafos segundo y tercero
—	Artículo 2, apartado 2, párrafo cuarto
Artículo 3	Artículo 3
Artículo 4, apartado 1	Artículo 4, apartado 1
Artículo 4, apartado 1 <i>bis</i>	Artículo 4, apartado 2
Artículo 4, apartado 2	Artículo 4, apartado 3
Artículo 4 <i>bis</i>	Artículo 5
Artículo 4 <i>ter</i>	Artículo 6
Artículo 5	Artículo 7
Artículo 6	Artículo 8
Artículo 7	Artículo 9
Artículo 8	Artículo 10
Artículo 9, frase introductoria	Artículo 11, apartado 1, frase introductoria
Artículo 9, puntos 1, 2 y 3	Artículo 11, apartado 1, letras a), b) y c)
Artículo 9, punto 4, primera y segunda frases	Artículo 11, apartado 2
Artículo 9, punto 4, tercera frase	Artículo 11, apartado 3
Artículo 9, punto 5	Artículo 11, apartado 4
Artículo 10	Artículo 12
Artículo 11	Artículo 13
Artículo 12	Artículo 14
Artículo 13, apartados 1 y 2	Artículo 15, apartados 1 y 2
Artículo 13, apartado 3	—
—	Artículo 15, apartados 3 y 4
Artículos 14 y 15	—
—	Artículos 16 y 17
Artículo 16	Artículo 18
Anexo I	Anexo I
Anexo II	—
—	Anexos II y III